

Ibon Sarasola:
Euskal kronopiorik existituko balitz

Josu Landa
(Ametzagaiña)

Ibon Sarasola, Gorazarre

Donostia, Carlos Santamaria, UPV/EHU
2015eko martxoaren 13an

Nik ez dakit euskal kronopiorik baden, ez nago seguru. Julio Cortazar maisuaren lanei begiraturaz gero, eman lezake Parisen edo Buenos Airesen baino ezin litekeela topatu izaki miresgarri horien zantzu garbirik.

Baina nik, maite eta miresten ditudan lagunak irudikatzeke, azken aldian nire buruarekiko maiz erabili ohi dudan irudia da kronopioarena. Nahiz eta nik, une zehatz honetan, anti-kronopiotasunaren ariketa barkaezina egiten ari naizen. Zeren eta, Cortazarrek definitzen dituen bezala, kronopioak ez baitira kezkatzen inoiz gertatu izan ziren gauzez, beti beren kasa dabilta eta ez dute maite gaurkoa bezalako areto batean akomodadoreak esan diezaien non jesarri behar duten, burua beti ametsez beterik.

Euskal kronopiorik existituko balitz, beharbada kronopio horrek gaztetan *Poemagintza* izeneko poema liburua argitaratuko zukeen, non hasieratik aldarrikatzen duen bera ez dela poeta, poema konstruktorea baizik, poeta *outsider* bat. Kronopio *outsiderra*, gehituko nuke nik.

Eta garai bertsuan apika Voltairen *Kandido* itzuliko zuen, oraindik Franco hiltzeko hiru bat urte falta zirenean.

Kronopio hipotetiko honek euskal literaturaren historiak idatzi ondoren —sozialak eta bestelakoak— euskal literatura numeroetara ere eramanez nahi izan zuen, beti oso harro egon izan baita inoiz ogibide izan ez duen *ingeniero*, injineru edo ingeniari formazioaz eta izaeraz. Horregatik ere agian, 1980an hizkuntzalaritza konputazionalaren edo corpus hizkuntzalaritzaren bidea sortu zuen gure artean, *avant-la-lettre*. Ordenagailuek txartel zulatuz funtzionatzen zuten garaian —datuak kartoizko txarteletan gordetzen ziren, bit bakoitza zulo bat—, 800.000 testu-hitzeko corpusa erregistratzeko bidea egin zuen maiztasun hiztegi baterako. Ildo horretako hurrengo pausoa, 1984an Orotarikoa izango zen hartarako corpusa digitalizatzea izan zen. Ordurako, ordenagailuek disketez funtzionatzen zuten, baina ez zegoen eskanerrik, eta hara ideia geniala, filologia ikasleen artean erreklutamendu bat egitea otu zitzaienten, klasikoen testuak letraz letra pika zitzaten. Teklatuek ez zuten 'ü' letra idazteko modurik, eta haren ordean klavierretan 'v' letra erabili behar izan zenuten hemen zaudetenetako batzuek. Asko gara ustezko kronopio honi ikasi diogunak, gauza onen etsaia dela perfektutasun nahia.

Hortik aurrerako ibilbide akademikoaz, hiztegiez, corpusez ez dut deus esango, aski aipatu baita gaur bertan orain artekoan.

Baina kronopioek oso gustukoa dute famak eta itxaropenak epatatzea, eta duela hemezortzi urte *Euskara batuaren ajeak* argitaratu zuen, polemika edo eztabaida modaz pasatutako kontu bat dirudien euskal jendarte honetan aski harrabots sortuz. Baina kronopioak horrelakoak dira, eta handik hamar urtera ez zuen arazorik izan lehenago hainbeste kritikaturako euskarazko produkzio idatziarekin berriz adiskidetzeko, bakeak egiteko, eta publikoki adierazteko.

Delako kronopioak 67 urte zituenean, Euskararen Akademian zituen ardurak eta lanak utzi egin zituen, dimititu egin zuen, gazte errebelde bati egokiagoak litzaizkiokeen formak eta hitzak erabiliz.

Kronopioak ezin geldirik egon baina, eta itzulpenak egiteari lotu zitzaion osterara: azken urte honetan Julio Cortazar bera eta Michel Houellebecq argitaratu ditu interneten, eta esku artean ditu Roberto Bolaño edo Julian Barnes...

Behartuta baizik erretiroa hartuko ez duen alegiazko kronopio honek auskalo zer ekarriko digun etorkizunean. Litekeena da, gaztetan hainbeste neska eta zenbait mutil zorarazi zituen bibote sarri eta mitiko hura berriz hazten uztea, behinola beltz-beltza, egun kaskazuritua; edota pianoa jotzen berriz hastea, nork daki.

Behin, gaztetan, eta hau ere beridikoa da, balizko euskal kronopio hau Julio Cortazarrekin berarekin gurutzatu zen Bartzelonako Guell parkean, eta kronopioek soilik senti dezaketen tximeleta hegaldaldia sentitu zuen sabelean.

Hemen gauden batzuk inoiz dardarak hartu izan gaitu Errazkin kronopioak bere atzamar akusatzailea paseatzera ateratzen duenean, baina ikasi ere ikasi izan dugu bere larderiako hitzak eta iritziak argudioz ez ezik umorez ere desmontatzen; bere ume begirada eta irribarreek lagunduta, ikasi dugu, azken finean, bera maitatzen.

Euskal kronopiorik existituko balitz, Ibon Sarasola ez litzateke bakarra izango, jakina, ugariak baitira kronopioak, Julio Cortazarrek kronika batean kontatzen duenez Louis Armstrongen kontzertu baterako antzoki bat betetzeko adina bai, gutxienez. Ibon ez litzateke, beraz, bakarra izango, baina bai hemen gauden batzuentzat, edo askorentzat, kronopio maitagarriena; edo hobe esan, maitagarrienetakoa, ez baita komeni inor larregi harrotzea.